

Kalea, antzezleku

Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatu dute Kukuka eskolako lagunek, herrian barrena esketxak eginda / 6

TXINTXARRI

Egindakoaz eta egiteko duenaz

Maialen Aristegi Letamendia kantautore gaztearekin elkartu da TXINTXARRI, esku artean duenari buruz gehiago jakiteko / 9

Maiatz amaierako hauteskundeak prestatzen ari dira Lasarte-Oriako alderdi politikoak / 2

Oporrak Bakean egitasmoan parte hartzerantz animatu dituzte herritarrak, ume sahararrak hartzeko / 5

'918 gau', 'Zumiriki' eta 'Los Xey' dokumentalak proiektatuta itxi dute aurtengo Euskal Dokumentalen Zikloa / 7

30. Azkoitia-Azpeitia maratoni erdiko proba motza irabazi du Jon Presa atleta lasarteoriatarra / 10

Apirilaren 2an jokatuko dute XII. BTT LEM Lasarte-Oria proba; 350 partaidek izena eman dute / 12

Hurrengo TXINTXARRI apirilaren 21ean argitaratuko dugu; bitartean, jarraitu gure atari digitala



600 85 75 86
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Udaberria iritsi da! Zaindu zaitez!

AIRE FRIJIGAILU OSASUNTSUAK



PARRILAK
Elektrikoak eta su plakan jartzekoak.
Neurri ezberdinetan



IRABIAGAILUAK

Kale Nagusia, 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



Hauteskundeak prestatzen

Alderdi politikoek maiatz amaierako udal eta foru hauteskundeak lantzen jarraitzen dute: Espainiako Kongresuko diputatu Oskar Matute gonbidatu du EH Bilduk, eskualdeko alkategaiak aurkeztu EAJk, eta amaitzean den legealdia baloratu PSE-EEK

Txintxarri

Espainiako Kongresuko diputatu Oskar Matute gonbidatu du Lasarte-Oriako EH Bilduk koalizioaren alkategai izango den Estitxu Garmendiarekin hitz egitera, legegintzaldian egindakoa gainbegiratu eta erronkak azaltzeko. Jaizkibel plazan batu dira eta herritar ugariaren interesa piztu du saioak.

Garmendiak egin dizkio galderak Matuteri. Hala, esaterako, EH Bilduk urteotan zertan aurrera egin duen jakin nahi izan du alkategaiak. Bizkaitarraren esanetan, alderdiak ahalegina egin du herri honen erronkak ulertzeko eta horiek gehiengoetatik baldintzatzeko, jendea batuz proiektuari. "Herritarren erronkei eta desberdintasun guztiei erantzuteko gai izango den mugimendu bat sortzeko saiakera. Hori da nire ustez gure aurrerapen lerroa", nahiz eta akatsak eta hutsegiteak ere egin dituztela aitortu. "Asmoa argia da eta ez dugu ezkututzen: gehiago izan nahi dugu, irabazi egin nahi dugu; badakigulako guk egiten ez duguna gure aurka egingo dutela".

Egungo erronkak ere hizpide izan dituzte. Besteak beste, lau aipatu ditu Matutek: klima aldaketa eta horri erantzuteko beharrezkoa den desazkundera eta energia berriztagarrien aldeko apustua; bizitza duina bermatzeko inbertsioak, osasungintza eta hezkuntza, esaterako, indartuz; eredu industrial, kalitatez eta berrikuntza teknologikoan oinarritutako ekoizpena etorkizuna bermatzeko; eta publikoaren defentsa, "merkatuaren erasoak geldiarazteko tresnak dituen

gizarteak hobe bermatzen ditu jendearen eskubideak. Horrek esan nahi du Osakidetzak indartsuagoa izan behar duela, sektore estrategikoetan sartu behar dugula: energia, banka... logika neoliberalarekin hautsiz".

Alkategai jeltzaleak, Urnietan

Buruntzaldeko udalerrietako alkategaiak aurkeztu ditu EAJk, Urnietan. Bertan izan da Lasarte-Oriako hautagai Jon Antxordoki, Gipuzkoako ahaldu nagusigai Eider Mendozarekin batera. Alderdi jeltzaleak gure herrian aurrera eramandako lana azpimarratu du lasarteoriatarrek, euskara arloan eta kirol instalazioetan egindako "jauzia" nabarmenduta. Hauek izango dira EAJren hautagaiak eskualdean: Andoainen, Imanol Goenaga; Astigarragan, Maria Otaegi; Hernanin, Andoni Amonarraiz; Lasarte-Orian, Jon Antxordoki; Urnietan, Jorge Segurado; eta Usurbilen, Xabi Otxoa.

Beterrri-Buruntza eskualdeko herri hori goraiatu du Mendozak, EAJren egiteko moduen adibide on gisa. "Urnietan, eskualdean eta Gipuzkoan, denon artean, etorkizun jasagarriagoa eraikitzen ari gara. Zentzu horretan, trenak funtsezko papera jokatu du". Garraibide horrek berebiziko garrantzia izango duela adierazi du Gipuzkoako ahaldu nagusi izateko hautagaiak, baina, horretarako, ongi funtzionatu behar duela: "Kalitateko zerbitzua eman behar die herritarrei, berme guztiekin. Ez dira posible eskualdea gurutzatzen duen RENFEko trenak izaten dituen arazo eta

atzerapenak". Gai horren gaineko eskumena behar du alderdi jeltzaleak egoera horri aurre egiteko. "Konpromisoa hartzen dugu horren alde lan egiteko".

Amaitzeko, "Gipuzkoa bultzatzen jarraitzeko ardura" dutela adierazi du Mendozak: "Ez dizuegu hutsik egingo".

Agintaldiaren balantzea, alkateak

Agustin Valdivia alkateak amaitzean den agintaldiaren balantzea egin du, berriki. Mandatu garaia ez dela erraza izan azpimarratuz hasi du agerraldia, zailtasunak eragin dituzten egoera nagusiak zeintzuk izan diren argituz: COVID-19ak eragindako osasun larrialdia eta Ukrainiako gerra. Azaldu du gertakari horiek herritarren bizitzari eragiteaz gain, udal kudeaketan ere ondorioak izan dituztela. Halere, nabarmendu du agintaldi hasieran hartutako konpromisoen %84a bete dutela, eta "harro" agertu da horrekin; barkamena ere eskatu du, osatu ezinda geratu diren konpromisoengatik. Zerbakiaren ere eraman du informazio hori: Aurrera emandakoak 162 izan dira (%84). Egiteke daudenak, berriz, 26 (%13), eta bete ezin izan direnak, aldiz, 5 (%3).

Arloz arloko errepasoari ekin aurretik, Alkatetzaz hitz egin du. Aipatu du sail hori "irekia" izan dela, berak karguari ekin zionean azaldu bezala. Uste du gunea herritarrei irekitako gune izatea "funtsezkoa" dela, eta hala izan zedin saiatu dela. Datuak ere ezagutarazi ditu. 2019. urtetik orain artea, guztira aurrez aurreko 591 hitzordu artatu



Herritar ugari bertaratu ziren Estitxu Garmendia eta Oskar Matute entzuteran. TXINTXARRI



EAJren eskualdeko alkategaiak, Gipuzkoako hautagai Eider Mendozarekin. EAJ



PSE-EEren idazkari Iñaki Mugica ezkerrean eta Agustin Valdivia alkatea eskuinean. TXIN.

ditu, eta horrekin batera, 884 kexa eta iradokizun ere bai.

Honako alorrak gainbegiratu ditu gero: Memoria eta elkarbizitza; Parte hartzea eta Gardentasuna; Etxebizitza eta hirigintza; Ikastetxeak; Zerbitzu publikoak; Garapen jasagarria; Gizarte Zerbitzuak; Sozioekonomia; Kultura eta Hezkuntza; Gazteria; Jaiak; eta Kirolak. Informazio oso eta zehatza biltzen duen liburuxka jasoko dute herritarrek, egunotan, etxeko postontzian.

Auzo auzo egitasmoaren balantzea egiteko ere baliatu du agerraldia. Herritarrekin hitz egin eta maiatzeko hauteskundeetara begira euren iradokizun eta ideiak jasotzeko aurrera eraman du PSE-EEK ekimen hori. Zortzi auzotan izan dira eta guztira 123 pertsonen proposamenak jaso dituzte horietan. Etxez etxe banatutako eskuorrien bidez, berriz, 81 herritarrek bidali dizkiete iradokizunak, eta hamabost posta elektronikoko ere bai.

HAPO plana onartzeko akordioa lortu dute

Hiri Antolamendu Plana onartzeko adostasuna egin dute Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosek eta PSE-EEK. Etxebizitza politika sozialen garapenean oinarritu da akordioa, "bizilagunak gehien kezkatzen dituen arazoetako batean", azaldu du ELOPek

Txintxarri

Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos eta PSE-EE alderdiek akordioa lortu dute Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartzeko. Horri esker, Cocheraseko eremu osoa alokairu sozialerako etxebizitzak eraikitzeke erabiliko da; hala jakinarazi du Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosek.

Bi alderdi horien helburu partekatua da udalerrian alokairuko etxebizitzaren eskaintza zabaltzea, eta horretarako, beste neurri batzuen artean, 2023ko udal aurrekontuetan partida espezifiko bat bideratuko da udalerrian etxebizitza hutsen erregistroa abian jarriko duen pertsona bat kontratatzeke. Gainera, iragarri dute etxebizitzaren behatoki bat sortzeko konpromisoa ere hartu dutela.

Akordio horren bitartez, halaber, kiroldegiaren egungo lurzatiaren kalifikazioari utsiko zaio, eta ekipamendu bat eraikitzeke erabiliko da. Horren erabilera nagusia adinekoentzako eta gazteentzako ostatuak izango direla zehaztu dute. Gainera, egungo gobernu taldeak konpromisoa hartu du Oriagain eremuan alokairu



Elkarrekin Lasarte-Oria Podemoseko kideak, Andatza plazan. ELOP

sozialeko ehun etxebizitza eraikitzeke.

"Lankidetzeta fase berria"

Elkarrekin Podemosek "oso positibotzat" jo du akordioa, bi alderdien arteko "lehen hurbilketa urratsa" delako, eta "sintonia fase berri bati" ekiten diolako. Elkarrekin Lasarte-Oria Podemoseko bozeramaile eta alkategai Miguel Agel Tolosak, PSE-EEren "jarrera

ona" azpimarratu du, eta, nabarmendu, gainera, ez dela akordio puntual bat, baizik eta datozen urteetako Lasarte-Oria elkarrekin eraikitzeke lankidetzeta bide bat. Tolosa bera ere "oso pozik" agertu da etxebizitzaren gaia konpontzeko urrats egokiak eman izanagatik: "Gure herriko bizilagunak gehien kezkatzen dituen arazoetako bat da", gaineratu du.



NEURE KABUZ
JEXUX ARTETXE

Begiradak

Ezin dezakegu uka iraganeko gerra zikinek utzitako sufrimendu bidegabeak zamatzan duela gure egungo eta etorkizuneko bizikidetzeta. Auzo bereko biztanle izan gaitezke elkarren ondoan erroldatuta egonik, baina elkarri bizkar emanda bizi, gutako bakoitzak bere lubakitik ateratzeko biderik topatu ezinik.

Oroitzapena dela geroa abestu zuen Xabier Letek Xalbadorren omenez konposatu zuen eresi hunkigarrian. Memoria izan behar baita gaur geroztik eraikitzeke dugun bizikidetzaren funts ezinbestekoa. Amesten dugun elkarbizitza ahanzturan zimendatuko balitzateke, zoru sendorik gabea gerta dakiguke. Nola sustraitu eta partekatu, datorren denbora horri begira, bilatzen ditugun oinarri sendo horiek?

Gai horren inguruan jardun ginen lehengo astean Lasarte-Oriako Bizikidetzeta Taldeak antolatutako hitzaldian. Hiru biktima eta hiru historialariek, oroimen partekatuaren xerka, egindako *Begiradak* dokumentua izan genuen hizketa eta aztergai. Sei haietatik, Josu Elespe lasartearra eta Eider Landaberea historia irakaslea etorri ziren gurekin solastera.

Saio hartatik, bost ondorio nabarmenduko nituzke nik. Aurrenekoa, garaiaren gaineko gogorapen askotarikoak gorde badaitezke ere, memoria bat nagusituko dela. Bigarrena, indarkeria eragin edo justifikatu duten guztien autokritika nahitaezkoa dela. Hirugarrena, iraganean gertatu dena ere giza eskubideei egin zaizkien kalteetatik epaitu behar dugula. Laugarrena, biktimei eguneroko elkarbizitzan gizarteratzea lagundu behar diegula. Eta bosgarrena, komeni zaigula indarkeriaren garaia ulertzea, baina inolako justifikaziotan erori gabe.

Bukatzeke, esan dezaket joan den asteko bileran argi asko nabarmendu zela Bizikidetzeta Taldeak orain arte bete duen eginbidea eta *Begiradak* agiriak markatzen dituen ideien arteko bat etortzea.

Zuzeneko podcast saioa

Izan Iñurri elkarteko lagunek *Dragón Cáncer* podcastaren zuzeneko saio bat eman zuten hilaren 23an, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Jordina Arnau eta Olatz Mercader elkarteko kideak arduratu ziren saioa gidatzeaz, eta gonbidatuen artean egon zen Maite Martin herritarra.



TXINTXARRI

Begiraleen lan poltsa Udako Txoko eta Udalekuetarako

Baloratuko da:

- Begirale edo zuzendari titulua.
- EGA edo baliokidea den agiria.
- Ikasketak.
- Lan esperientzia.

Beharrezkoa da:

- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskaera orria eskuratzeko: labur.eus/ttakunbegiraleak2023

Marremanetan jartzeko: begiraleak@ttakun.eus

Geltoki 4 Lasarte-Oria
943-37 14 48

UDABERRIAN PRESTA EZAZU AZALA UDARARAKO!

MAITE
ESTETIKA ARETOA

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratzeko dugu

ZERBITZU MISTOA

Usitin kalea z/g · 943-370845 LASARTE-ORIA



Osasun Zentro ondoko eraikineko bigarren solairuan dago KIUB bulegoa; astelehenetik ostiralera artatzen dituzte herritarrak. TXINTXARRI

"Apurka-apurka etortzen ari dira herritarrak"

KIUB BULEGOA KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIORAKO UDAL BULEGOA

Lasarteoriarrek kontsumitzaile gisa erreklamazioak egiteko aukera dute, berriz ere, hilaren lehenetik aurrera. KIUB bulegora joan behar dute horretarako

Txintxarri

Ia hiru urtez zerbitzua etenda egon ostean, hilaren 1az geroztik martxan da, berriz ere, KIUB Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Bulegoa. Bertako langileek azaldu dute herritarrak "apurka-apurka" joaten ari direla kontsultak eta erreklamazioak egitera, eta hilabetearen balorazio "positiboa" egin dute.

Hilabete pasatxo igaro da berriz ere KIUB bulegoak ateak zabaldu zituenetik. Zein martxa darama? Etorri da herritarrik?

Apurka-apurka datoz. Zerbitzua berriz ere martxan jarri dela jakiten ari da jendea, eta pixkanaka-pixkanaka badatoz herritarrak. Ahoz ahozkoa funtzionatzen ari da, eta balorazio positiboa egiten dugu.

"KONTSUMITZAILEEN KEXAK ENTZUN ETA ERREKLAMAZIOAK EGITEN LAGUNTZEN DIEGU GUK"

Zein kontsulta edo tramite egitera etortzen dira?

Batez ere telefono, gas edota argindarraren fakturen erreklamazioak egitera etortzen dira.

Zer erreklamatzan dute?

Kexu dira hornitzaile enpresarekin kontratatu duten zerbitzua ez delako jasotzen ari direna, edo adostutako prezioa garestitu egin dietela aurrez inolako abisurik eman gabe. Izan ditugu, baita ere, zerbitzu batean bajan eman arren, faktura jaso dutenak ere. Gisa horretako egoerak bideratzen laguntzen diegu.

Eta nola laguntzen da horretan?

Zein tramite egiten duzue zuek? Bitartekari lanak egiten ditugu guk. Esan bezala kontsumitzaileen kexak entzun eta erreklamazioak egiten laguntzen diegu.

Eta horrelako tramite bat egiteko zein dokumentu ekarri behar dituzte erabiltzaileek?

Akatsa duen edo erreklamatu nahi dutena agertzen duen

dokumentua ekartzea ezinbestekoa da, adibidez, argindarraren, telefonoaren, gasaren, edo dena delakoaren faktura.

Eta zer nolako erantzunak jasotzen dituzte erabiltzaileek?

Bada, begira, martxan daramagun denbora tarte honetan, erantzun dituzten erreklamazio guztiek erabiltzaileen alde egin dute, hau da, onartu egin dira. Oraindik badira erantzunik jaso ez dutenak, prozesuan daudenak.

Zein egun eta ordutegian joan daitezke lasarteoriatarrak KIUBera?

Astelehenean, 15:00etatik 20:00etara egoten da bulegoa zabalik, eta asteartetik ostiralera, aldiz, 09:30etik 14:30era.

Eskatzen diegu, ahal dela hitzordua hartuta etor daitezela. Ez da nahitaezkoa, baina tramite bakoitzak bere denbora behar du eta ez saihestu nahi dugu erabiltzaileak hemen denbora luzez zain egotea. Horretarako, telefonoz dei gaitzakete, honako zenbakira: 943-36 16 05.



Atsobakar egoitza, kanpoaldetik. TXINTXARRI

Atsobakar egoitzako tokiak bikoiztu egingo dituzte

Erresidentzia zabaltzeko lanen barruan, tutoretzapeko sei pisu eraikiko dituzte; Lasarte-Oriako Udalak kudeatuko ditu

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lasarte-Oriako Udalak adostu dute Atsobakar egoitza zabaltzea, eta egoiliarrentzako toki kopurua ia-ia bikoiztea: 57 daude orain, eta 108 izango dira handitze lanak amaitzen dituztenean. Obra horiek berriki atera dituzte lizitaziora: 10.314.858 euroko kostua izango dute. Adjudikazioa irabazten duen enpresak bi urte izango ditu lanak gauzatzeko. Toki gehiago egiteaz gain, tutoretzapeko sei apartamentu eraikiko dituzte, eraikin berriko goiko solairuan, autonomoak diren adineko pertsonentzat. Kaletik sartu ahalko dute pisu horietara. Udalak kudeatuko ditu.

Agustin Valdivia alkateak eta Gizarte Zerbitzuak sailko buru Lourdes Acevedok adierazi dute "oso pozik" daudela erdietsitako akordioarekin. "Hiru urteko lan gogorra izan da. Bilera ugari egin ditugu Aldundiko Gizarte Gaietako diputatu Maite Peñarekin; fruitua eman dute", esan du Valdiviak. "Plaza gehiago eskaini ahalko dizkiegu herriko adinekoei, eta itzarote zerrendan egon beharreko denbora murriztuko, azpimarratu du Acevedok. "Funtsezkoa da pertsona horiek euren ingurunean bizitzen eta Lasarte-Oriako bizitzaren parte izaten jarraitzea". Bestalde, alkatearen hitzetan, "adi" egongo da udala, obrek "ahalik eta gutxien" eragin dezaten honezkero egoitzan dauden egoiliarren egunerokoan.

"Gaur egun, Atsobakarrek U forma du; obrekin, itxi egingo dute, eta O bilakatu", azaldu du alkateak. Horrez gain, aldeetan bi hegal zabalduko dituzte. Lehen esan bezala, tutoretzapeko sei apartamentuak goiko solairuan eraikiko dituzte: indibidualak edo bikoitzak izango dira, oinarrizko azpiegitura guztiekin eta terraza banarekin. Gehitu du udalaren eskumena izango direla pisu horiek, eta gurean egiten dituzten aurrenekoak izango direla. Europako Next Generation funtsarekin finantzatuko dituzte lanak bi erakundeek, oso-osorik.

Erakundeen arteko elkarlana

Atsobakar egoitzan aurrera eramango dituzten lanen nondik norakoak zehazteaz gain, Valdiviak eta Acevedok balioan jarri dute Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako elkarlana. "Bataren zein bestearen helburuak eta interesak bat datozenean horrelako akordioak erdiesten ditugu eta onuradun handienak herritarrak izaten dira", nabarmendu du Gizarte Zerbitzuetako buruak. "Batuetan, bilera eta lanketak egiten ditugu baina ez dira mamitzen; kasu honetan, ordea, bai", adierazi du alkateak. "Euren artean kolaboratzea da administrazio eta erakundeen zereginetako bat".

Agerraldia amaitu aurretik, bi udal ordezkariak azpimarratu dute Atsobakar egoitza zabaltzeak langile gehiago behar izatea dakarrela, eta horrek "lanpostu berriak" sortuko dituela.

Uda bateko besarkada emateko ume sahararrei

Oporrak Bakean egitasmoa martxan dagoela jakinarazi du herritar talde batek. Familiek aukera dute ekain amaieratik abuztu bukaerara arte Mendebaldeko Saharako haurrak ekarri, lagundu eta haien kultura ezagutzeko. Izena emateko azken eguna apirilaren 25a izango da

Txintxarri

"Oporrak Bakean egitasmoaren helburua da 300 bat haur saharar Euskal Herrira ekartzea; familia lasarteoriatarrek animatzen ditugu ekimenean parte hartu eta umeren bati uda gurekin igarotzeko aukera ematera". Tomas Arrutiren hitzak dira, aipatu proiektua Lasarte-Orian sustatzeaz arduratzen ari den herritarretako batenak. Jakinarazi du izena emateko azken eguna apirilaren 25a izango dela, asteartea. Webgune honetan topatuko dute informazio gehiago: www.oporrakbakean.eus. Bestela, 696 01 47 86 telefono zenbakira deitu dezakete. Hori da Gipuzkoako kontaktua.

"Kanpalekuetan une gogorak jasaten dituzte: udan, adibidez, 55 gradutik gora izaten dituzte, jasanezina da hori", adierazi du Arrutik. "Bi hilabetez etortzen dira haurrak, ekain amaieratik abuztu bukaerara arte. Tarte hori aprobetxatzen dugu mediku azterketak egitera eraman eta elikadura aproposa emateko". Pandemiak proiektuari eragin dio; iaz berreskuratu zuten ume horiek etxeetan hartzeko aukera. "Koronabirusaren aurretik, sei bat pertsona etortzen ziren gurera", gogoratu du. "Herritarren bat animatzen bada eta gugana



Oporrak Bakean egitasmoan parte hartzerantz animatu dituzte herritarrek. TXINTXARRI

jotzen badu, Oporrak Bakean egitasmoa kudeatzen dutenengana bideratuko dugu".

Gogor lanean, 2009tik

Oporrak Bakean programaren lantaldea 2009an eratu zuten, Mendebaldeko Saharako Fronte Polisarioak Euskal Herrian duen ordezkariak hala eskatuta. Bertako kideek, Euskal Fondoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako boluntarioek aurrera eramaten dute egitasmoa, herriz herriko udal eta taldeekin elkarlanean.

Helburu nagusia, esan bezala, familia euskaldun edo udalekuetan 8 urteko haur sahararrak hartzea da, udarako hilabeteetan.

Antolatzaileek nabarmendu dute "oso onuragarria" dela ekimenean parte hartzea umeentzat, "osasun kontuengatik, ikasten duten guztiagatik eta bizitzen duten esperientziagatik". Bidenabar, harrera familientzat ere "komenigarria" dela adierazi dute. "Errealitate berri bat ezagutu eta elkartasuna nahiz enpatia jorratzen dituzte".



Hamar musika talde aurkeztu dituzte, momentuz, aurtengo sanpedroetarako. TXINTXARRI

San Pedro Jaietako kontzertu nagusiak iragarri ditu udalak

Isla eta Okendo plazetako emanaldiak aurkeztu ditu. Puro Relajo, Zetak, Neomak eta La Guardia dira horietako batzuk

Txintxarri

Sanpedroak girotuko dituzten musika emanaldi nagusiak aurkeztu ditu udalak. Horien aurrekari gisa, *Dial al Sol* jaialdia ere iragarri dute Agustin Valdivia alkateak eta Txus Alonso Jaiak Saileko arduradunak. Momentuz, horren inguruan aurreratu ahal izan dituzten informazio bakarrak data eta lekua izan dira: ekainaren 25ean egingo dute, Andatza plazan.

Oriarte Institutuan, iaz bezala gauero gazteentzako DJak arituko direla ere berri eman dute; herriko taldeen musika emanaldiak ere izango dira bertan. Hori guztia kudeatzen ari dira oraindik.

Iragarri dituzten kontzertuera zenbat diru bideratu duten ere argitu dute udal ordezkariak. Jakinarazi dute 80.000 euroko aurrekontua batzen dutela, BEZa kontuan hartu gabe.

San Pedro Jaietako kontzertuak

Asteazkena, ekainak 28:

- Isla plaza: Puro Relajo

Osteguna, ekainak 29:

- Isla plaza: Azabache.

Ostirala, ekainak 30

- Isla plaza: Azabache.
- Okendo plaza: Neomak eta Zetak.

Larunbata, uztailak 1:

- Isla plaza: Supersingles.
- Okendo plaza: La Guardia eta Star Ways.

Igandea, uztailak 2:

- Isla plaza: Ibai Berriak
- Okendo plaza: Gozategi

Egunpasa ederra

Zabaletako auzotarrek neguari agur esan zioten hilaren 25ean. Txuri Urdin Izotz Jauregira joan ziren goizean, patinekin irriskata egitera, izotzetan. Bertan botatako izerdiak berreskuratze aldera, bapo bazkaldu zuten gero, Basotxo plazako lokalean. Babarrunak jan zituzten, ezin hobeto lagunduta gainera, txorizo, odolki, txerri saiheski eta azarekin. 30 lagun elkartu ziren.



ZABALETA AUZOLAN

Kalean ospatu dute antzerkiaren eguna

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako kideek esketx ugari egin dituzte Zabaleta auzotik Okendo plazara arte egindako desfilean, Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Enparantza horretan irakurri dute Samiha Ayoub antzezle egipziarraren manifestua

Txintxarri

Basotxo plazatik abiatu zen Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak prestatutako erakustaldia, hilaren 25ean. Bertan egin bezala, Jaizkibel eta Dorre plazan etenaldiak egin zituzten esketxak antzezteko. Bidea, berriz, musikak lagunduta eta txaloka osatu zuten.

Aurreikusitakoa baino beranduago iritsi ziren helmuga zuten Okendo plazara. Lurrean eseri ziren aktore gazteak eta txandaka atera ziren bakoitzak prestatutakoa erakustera. Janaria eta edaria lapurtzen duen ustezko estatua, talentu

lehiaketa bateko partaideak, jan ondoren izandako amesgaiztoa, parke batean egindako lapurreta, lasterketa bat...

Amaitzean, bidean lagun izan zuten musikaren doinura altxatu ziren denak eta ilara osatu zuten. Haien aurrean jarrita, Samiha Ayoub antzezle egiptoarrak idatzitako manifestua irakurri zuten Kukukako bi kidek. Antzerkia "gizakiaren ekintza hutsa da, gizadiaren benetako esentzian oinarritzen dena, hau da, bizitzan", baieztatu du Ayoubek bere idatzian. Baita antzerkiaren alorrean lan egiten duten guztiek salbuespenik gabe, agertokira igo aurretik existitzen

ez zen bizitza sortzen dutela ere. "Bizitza honek merezi du ertsiko dion esku maitekor bat, besarkatuko duen bular maitekor bat, begiko izango duen bihotz onbera bat eta bizirik irauteko behar dituen arrazoiak emango dizkion buru soil bat".

"Ezjakintasunaren eta estremismoaren iluntasunari" aurre egiteko artearen argia aldarrikatu du. "Gure ahalegina, denbora, izerdia, malkoak, odola eta nerbioak jartzen ditugu, mezu noble hau lortzeko. Guk, eta ez beste inork, bizitza zabaltzeko gaitasuna dugu. Mundu eta gizateria baten alde egin dezagun elkarrekin".



Ikasle talde bat, Dorre plazan, esketx bat egiten. TXINTXARRI



Okendoko emanaldia amaitutakoan, talde argazkia egin zuten partaideek. TXINTXARRI



'Herriko gazte mugimenduak ezagutzen' mahai ingurua egin dute Xirimiri elkartearen. TXINTXARRI

Elkarrengandik ikasi eta elkarrekin ospatu

Hamarkada bete du aurrean Ernai Gazte Antolakundeak, eta, ospatzeko, herriz herri ari da jarduerak egiten. Lasarte-Oriako Taldeak solasaldi, bazkari, trikipoteo eta kontzertu bana aurrera eramanez, giro ederrean, iragana, oraina eta etorkizuna lotzeko

Txintxarri

Txorimalo, Elebeltz, Akelarre, Lasarte Moria... Dozena bat lagun batu ziren Xirimiri elkartearen, hilaren 25ean, *Herriko gazte mugimenduak ezagutzen* mahai inguruan. Norberaren bizipena partekatu dute eta egindakotik baliagarri izan daitekeena gero etorriko diren eskura jartzeko. Besteak beste, bakoitzak militantziari nola ekin zion azaldu zuten, taldea sortzeko zer behar edota hutsunak bultzatu zituzten gogoratuta.

Garai eta errealtate oso bestelakoak bizi izan dituzte. Sare sozialak, Internet eta sakelakoak hedatuta ez zeuden mundu batean abiatu zuten Txorimalo. "Insubordinazio ariketa izan zen, beste modu batera militatzeko. Herrian gauza pila bat mugitu zitezkeen, baina batzuk goitik zetorrenera lerratzen ziren", gogoratu zuten. Diagnosi bat egin zuten gazteen beharrei buruz eta horri lotuta, komunikazio kanpaina bat, "inork betetzen ez zuten espazio bat bete". Lasarte-Moriaren kasuan, berariaz feminista zen talde misto bat zen, modu autonomoagoan aritzeko,

"horrek beste jende bat batzea ekarri zuen". Kultura ere izan da elkartzeko haria. "Lasarte-Orian jende pila zegoen musika eta kultura interesatzen zitzaiona eta ez zuena enkajatzeko ikasteko antolaketan. Elkar ezagutzeko gogotik eta elkarrengandik ikastetik musika eskola sortu zen. Kultura beste kezka sozial batzuekin lotzen da, hortik abiatuta sareak eta harremanek beste esparru batzuetarako balio dezakete".

Ameba taldearen kontzertua

Non eta nola elkartu, beste eragileekin harremanak, mobilizatzeko gaitasuna... zenbait gaitan oinarrituta egindakoak gainbegiratu zituzten, aholkuak eman eta elkarrekin hausnartu. Hori izan zen goizeko ardatza, eguerdian, aldiz, leku berean bazkaria egin zuten, eta jarraian, trikipoteoa Ankoker herriko taldearekin batera. Musika gabeko ospakizunik ez da, eta arratsaldean izan zen unea. Insausti tabernan Ameba talde usurbildarrak indarrez betetako kontzertua eman zuten.



Zenbait dokumentaletako zuzendariekin hitz egiteko aukera izan zuten kultur etxeko auditorioan bildutako ikus-entzuleek. TXINTXARRI

Amaitu da aurtengo dokumentalen zikloa

Amaitu da Okendo Zinema Taldearen aurtengo Euskal Dokumentalen Zikloa. '918 gau', 'Zurimiki' eta 'Los Xey, una historia de película' dokumentalek itxi dute aurtengo egitasmoa. Azken bi horietako zuzendariekin hitz egiteko aukera izan dute ikus-entzuleek

Txintxarri

Zinema saio hirukoitzaz gozatzeko aukera izan zuten lasarteoriatarrek hilabeteko azken asteburuan, izan ere, Okendo Zinema Taldeak prestatutako zikloak kultur etxeko auditorioa hartu baitzuen ostiral, larunbat eta igandean, emanaldi bana eginda. Ostiralean, hilak 24 Arantza Santestebanen 918 gau proiektatu zuten, zuzendariak espetxean igarotako

denborari erreferentzia egiten dio izenburuak eta horien oroitzapena du oinarri.

Larunbatean, hilak 25, berriz, *Zurimiki* lanaren txanda izan zen. Oskar Alegria Nafarroako Pirinioko baso batera helduko den naufragoa da, naturarekin eta haurtzaroarekin bat egiteko asmoz. Ibaiaren ertz isolatu batean zurezko txabola bat eraiki zuen, haurtzaroan jolastoki zuen uhartetik gertu. Gune hori uharka

baten eraikuntzak desagerrarazi zuen, urperatuta, nahiz eta zuhaitzak oraindik zutik dauden.

Zurimiki hitzak ibai baten uren arteko lurra adierazten du, uhartea. Filmaren izenburuak aipatu lekuari erreferentzia egiteaz gain, Alegriaren aitak idatzitako hiztegi txiki baten azken hitza ere bada. Itzaina zen eta idiekin joaten zen ibaiertz horretara, baina "hitzaina" ere bazela dio Alegriak, hau da, "hitzen

zaindaria". Euskarazko hitzak bere erresuman galtzen ari zirela eta, txikitatik ikusi zuen aita haiek gortzen. "Naufragio horretatik zer erreskatatu ahal dugu" galdetu zion bere buruari zuzendariak eta hori izan zen proiektuaren abiapuntua. "Azken hitza berreskuratzen badugu, pauso bat izango da". Lortu duela dirudi, duela hiru urte "zurimiki" bilatuz gero Interneten ezer ez baitzen agertzen, egun, berriz, 8.000 erantzundik gora. "Zortzimilako bat konkistatu dugu".

Dena berak bakarrik egin du, posprodukzioa izan ezik, bere lagun batekin batera egin baitu. "Bakarrik ibili naiz, baina oso polita izan da ere naufragio horren artean ibiltzea". Basoko gauzekin ibili da eta aurkitutako horrekin bizi, lau hilabetez. Aitarengandik ikasi zuen "mirakulu baten zain" egon behar dela, hau da, zain. Ezeren zain egotea dela zailean ikasi du. "Lehen bietan gauzak egiten, baina une batean dena egina zegoen, eta hor adierazi ezina den zerbait gertatu zen". Horregatik, elementu gakoa aukia dela uste du, "esperoan egoteko". Ideia horiei lotuta, bordetara joan zen artzainen azken gauean, "beren unibertsoa itzaltzen den gau horretan" zer gertatzen zen jakiteko. Ez zen ezer gertatzen. "Inakzioa. Zer gertatzen da ezer ez gertatzen denean? Gauzak gertatzen dira. Argia, adibidez".

Mundu osoan ezagunak

Igandean, hilak 26, berriz, *Los Xey, una historia de película* ikusteko aukera izan zuten

bertaratutakoek. 1940an sortutako musika talde donostiarraren bi hamarkadako ibilbidea gainbegiratzeko dokumental bat izan zen eta belaunaldi askotan aztarna utzi zuen. Horren kontaketa egiteko, senideek, musika adituek eta haien egungo homologo diren Golden Apple Quartet taldeko Loyola Garmendiak hitz egin dute.

Bost urteko proiektua izan da. Olasagastiri Garmendiak kontatu zion Los Xeyen historia, bere taldeak omenaldia egiteko dokumentazioa biltzen aritu zirenean. Haien bizimodua nolakoa izan zen ulertu nahi izan du eta uste du lortu duela.

Abestietako asko beraiek idatzi zituzten, Txomin Arrasatek, bereziki; baina garaiko konposatzaile ezagunek, "herrialde bakoitzeko onenek", ere beraientzat sortu zituzten. Bitxikeria gisa, Madrid txotis ezaguna, Agustin Larak idatzi zuen Los Xeyentzat.

21 urteko ibilbidea osatu ondoren, bereizi egin ziren eta orduan bakoitzak ahal zuenean lan egin zuen, batzuek etxera bueltatuta eta beste batzuek Hegoamerikan. Gaizki pasatu zuten kideetako batzuek. "Diru asko irabazi zuten, baita gastatu ere".

Material asko bildu du Olasagastik eta aitortu du kosta egin zitzaiola aukeraketa egitea.

Eskerrak eman dizkiote ikusle etako batzuek euren bizitzaren parte izan baitzen taldea. Loyolaren arreba ere bertan zen anaia dokumentalean agertzen zela ez zekiela aitortu du, eta berari ere "ilusio handia" egin dio.

'Zomorrotu' ipuin liburua argitaratu du Usandizagak

Pertsonaiek elkar lotzen dituzten bost istoriok osatzen dute idazle lasarteoriatarren azken lanak

Txintxarri

Naiz atariak berri eman duenez, Aintzane Usandizaga herritarrak bere azken lana aurkeztu du berriki: *Zomorrotu* ipuin liburua. Bost istorioz osatuta dago, eta horiek elkar lotuta daude liburuko pertsonaien bitartez. Pertsonaia horien harremanek inguruari nola eragiten dioten jaso ahal izango du irakurleak

atal bakoitzean. *Zomorrotu* jarri dio izenburua, eta iradokitzen duen moduan, bi adiera nagusi dituela azaldu du aurkezpenean. Batetik, intsektuekin lotu du zomorrotu hitza, norbere baitan biltzearekin; bestetik, berriz, zomorrotu adierarekin pertsona bakoitzak testuinguru jakin batera moldatzeko duen joera agertu nahi izan du.

Elkarrizketek, erritmoa

Elkar argitaletxeko Xabier Mendiguren editorea eta Danele Sarriugarte idazlea ere izan dira aurkezpenean, eta azken horrek hitzordu hori baliatu du adierazteko liburuko pertsonaien eraikuntza oso erreala dela, eta horien alde ezberdinak erakusten dituela Usandizagak. Horri jarraiki, herritarrak berak nabarmendu du pertsonaien arteko loturak "pisu berezia" izan duela. Elkarrizketak ere ageri dira liburuan, eta horiek lanari "erritmoa" ematen diotela nabarmendu du idazleak.



Aintzane Usandizaga idazlea, Ttakunenean, artxiboko irudi batean. TXINTXARRI

Euskararen festa handia gogoratzeko jarduerak

Askatasunaren parkean urrian landatutako bi zuhaitzei plaka bana jarri diete eta horiek ikusgai jarri dituzte ekitaldi xume batean. Ondoren, bizitzakoa irudien bidez gogoratzeko aukera izan dute kultur etxera joandako herritarrek

Txintxarri

Ibaiertzetik gertu landatu zituzten Euskararen 10. Maratoian bi haritz. Lehiaketa egin zuten haiei jarritako plaka bakoitzean zer hitz idatzi erabakitzeke. Horiek ezagutarazi zituzten Udaleko Euskara departamentuko buru Jon Antxordoki eta Ttakun Kultur Elkarteko Andoni Anabitartek. Bertan izan ziren Zortzikoteko sei kide, GuruBuruak, Agustin Valdivia alkatea, Lourdes Acevedo eta David Mateos zinegotziak eta zenbait herritar. Antxordokik eskerrak eman zizkien denei han izateagatik eta bi esaldiak dituzten plakei estalkia kendu zien Anabitarterekin batera. Lehena, joan direnen omenezkoa, Anabitartek irakurri zuen. Izaskun Manterolaren esaldia da: "Gazte, heldu, euskaldun zahar zein berri zuk eman diozu bultzada Lasarte-Orian euskarari. Bihotzez, mila esker, maratoilari". Bigarren plakakoa, aldiz, bertso eskolako ikasle Xuban Urdalletarena da:



Ekimenean parte hartu zuten kideek, talde argazkia atera zuten amaieran. TXINTXARRI

"Kimuak ditzagun zaindu, goxatu eta ureztatu, herria eta hizkuntza daitezen loratu", irakurri zuen Antxordokik.

GuruBuruak "freetourra Sinai mendian" gisa -bi zuhaitzen arteko bidea- deskribatu dutena

amaituta, gune honen garrantzia azaldu zuten. Euskarari egindako "aldarea" da, "euskararen bilgunea", eta fededunek Done Jakue bidea egiten duten moduan, euskararen erromesek bertara egin beharko dute, gutxienez,

bizitzan behin. Etortze hutsa ez da nahikoa, ordea. erritual bat ere burutu beharko dute: Lur santua zapaldu, hatzak haiek bezala jarri, eta 888 egin. Argitu zuten, zortzia da Euskararen zenbakia. Zergatik zortzi? Hori azaltzean trantzean sartu dira bi profetak: "Zortzikotea", "zortziak bat", "Urrian Maratoialdia da, hamar ken bi zortzi", "hemen zortzinaka jar zaitezke", "zortziko txikia, zortziko handia"... "Euskararen zenbakia zortzia da. Oso justifikatuta dago. Oso", amaitu zuen BuruBagak argudio zerranda.

Hortaz, zortzi buelta eman behar dituzte erromesek bi zuhaitzen artean zortzia marraztuz, iraganetik etorkizunera, "gure baitan" mantra errepikatuta. "Zortzi zentzu batean, zortzi bestean", zehaztu zuen BuruBigak; "eta egiten duzu Maratoia", bota zion BuruBagak. Bukatzeko, Oria ibaira joan, ur bedeinkatua hartu eta zortzi aldiz joan-etorria egin beharko dute. Ondoren, "ez han, ez hemen, hemen" bota beharko dute, bi zuhaitzen erdibidean eta bakoitzak zuhaitz bat irudikatu, norberak barruan duen euskararen arabera izango dena. Horrek gogoetarako bide emango die erromesei. "Eukaliptoak eta pinuak, mesedez, saiatu ez ateratzen. Zuhaitzak dira, asko daude, baina hori ateratzen bazaizue,

hausnartu nola dauden zuen barruko euskara", ohartarazi zuen BuruBigak.

Ibaiertzeko komun publikoen ondoko kokapena ez da kasuala, "euskara komunean, denok daukagulako amankomunean", baita hizkuntzak ezin duelako izan zerbait "garbia, purua, heldu ezina". "Oso espirituala eta debalde" egin behar den zerbait bada ere, horrelako aldare bat Lasarte-Orian jartzea erakargarri turistikoa ere izan daitekeenez, negozio bideak ere pentsatu dituzte. *Souvenir* denda bat jarriko dute eta bertan, sorioneku eskuak, ur bedeinkatua potetxoetan, Salda badago kartela... salgai. Mantra aplikazioa, erritua irakasteko dinamizatzaile soziokulturalak, zortzikotearen argazkia burua sartu eta argazkia egiteko, kartoizko GuruBuruak edo eurak bezala jantzitako pertsonak, esaldien plakak, tatuatzaileak... Denetarik bururatu zaie guruei.

Zortzikotearekin erritualaren zati bat egin eta talde argazkiarekin amaitu zuten aurkezpena. Jarraian, kultur etxerako bidea hartu zuten izan ere, Isa Fernandez de Agirrek eta Edu Galardik Euskararen 10. Maratoialdian grabatutako irudiekin osatu duten ikus-entzunezkoa proiektatu baitzuten. Bideoa ikusteaz gain, noski, dantzan ere egin zuten Zortzikoteko kideek eta haiekin batera emanaldira bertaratu ziren herritarrek ere.

Postre goxoak prestatu dituzte

Okendo plaza sukalde inprobisatu bilakatu zen iragan ostiral arratsaldean, hilak 24, izan ere, Gazte Klubeko kideek gozogintzan duten trebezia erakusteko aukera izan baitzuten. Ttakun Kultur Elkarteko egitasmoan parte hartzen duten gaztetxoek prestatutako gutzien artean onena zein den deliberatzeko ardura izan zuten begiraleek. Itxura zaporearekin bat badator, erabakia ez zen erraza izan.



TXINTXARRI

Iñigo Gonzalez Sarobe

Maialen Aristegi Letamendia (Lasarte-Oria, 2000) kantautoreak aurrez aurre egin duen lehen elkarrizketa izan da hau, eta ez du desafinatu. Gitarrarekin jotzen dituen akordeak bailiran, bata bestearen atzetik etorri dira gogoeta eta hausnarketak.

Hilaren 24an herrian jo zenuen berriro, Insausti tabernan.

Lasarte-Orian aritzeko gogoan nuen, aspaldiko partez. Soinu ekipoa ez zen onena, nik ere baliabide gehiago ez ditut, eta ahotsa joan egiten zen batzuetan. Egokitzea kosta zitzaidan apur bat baina bigarren zatian batez ere gozatu nuen. Gainera, aurrera egin ahala jende gehiago etorri zen, eta pozik. Oro har, ondo.

Asteburu berean Albizturren izan zinen. Zer moduz han?

Askoz gusturago jo nuen, ongi entzuten nuen dena, ikus-entzule dezente etorri ziren... Gainera, ez nuen ezagutzen herri hori [Tolosaldean dago]. Ongi dago nire lana beste toki batzuetan ezagutzera ematea.

Horrek esan nahi du gero eta jende gehiagok duela egiten ari zarenaren berri, ezta?

Egia esan, ez dakit nola izan duten nire berri, harritu nau, oraindik ez dudalako ezer grabatu. Hori egiten badut, errazagoa izango da nire musika zabaltzea.

Non izango da hurrengo emanaldia?

Araba Euskaraz ikastolen jaietan joko dut, ekainaren 11n. Gasteizen egin zuten Gazte Talent lehiaketako euskarazko saria irabazteagatik izango dut aukera hori.

Sortu duzuna grabatzea aipatu duzu lehen. Buruan duzue hori egitea?

Bai. Hamar abesti ditut, baina batzuetan iruditzen zait egiten dudana ez dela nahikoa ona, ez duela balio, ez duela merezi... Hurrengo egunean, justu kontrakoa. Seguru nago baina gero ez, Eire taldeak *Amaitu baino lehen* abestian esaten duen bezala. Uste dut aukera bat eman behar diodala nire buruari, disko oso bat ez bada, kantu batzuk behintzat grabatzeko.

Zein da urratsa egin ez izanaren zergatia? Konfiantzan gorabeherak, baliabide edo laguntza falta...?

Konfiantzatik badu apur bat. Bestalde, ez ditut soilik ahotsa eta gitarra grabatu nahi, soinu eta instrumentu gehiago sartu nahiko nituzke.

Kantugintzan hasi zinenetik bakarlarri gisa aritu zara. Aldatzeko gogoan duzue?

"Taldea bat sortu nahi dut, gauza berriak probatu"

MAIALEN ARISTEGI LETAMENDIA KANTAUTOREA

Bere ahotsari eta gitarrari instrumentu eta soinuak gehitu nahi dizkio kantautore gazteak. Baxua eta gitarra joko dituztenak lortu ditu; bateria eta biolin jotzaile banaren bila ari da



Kantautore gaztea, Insausti tabernan eman zuen kontzertuan. TXINTXARRI

Bai, probatu nahi ditut gauza berriak. Ez dut esan nahi bakarrik jotzen jarraituko ez dudarik, baina aldatu nahi dut, talde bat sortu. Baxua eta gitarra baditut, Pogrom taldeko Hugo Iñigo eta Skakeo-ko Julen Goenaga. Bateria bat behar dut baina ez dakit nori esan, biolin jotzaile batek ezetz esan dit, agian Julenen anaiari

proposatuko diot. Bi kanta bidali dizkiet, ea zer egin dezakegun.

Dena den, taldean jotzeari buruz ez dakit asko, eta musikaz ere gehiegi ez, akorde batzuk; orain artekoa horrela egin dut.

Elkarrizketa prestatzerakoan, besteak beste, zure Twitter kontua saltseatu duzue. Arreta deitu dit esaldi honek: "Kantuak hasi ta bukatu gabe uzten dituen horietakoa naiz".

Nire abesti batean esaten dut hori, *Bi aholsetara* izenekoan. Batetik, kantuei erreferentzia egiten diet, baditudalako beste hamar bat amaitu gabe. Bestetik, metaforatik ere badu, zerbait egiten hasten naizelako eta bukatu baino lehen beste gauza batzuekin jartzen naizelako.

Nola sortzen dituzue abestiak?

Ez dut prozesu jakin bat jarraitzen. Osorik egiten dudana aurreneko gauza musika da, letra gero jartzen diot. Batzuetan, idazterakoan, bertsoen neurriak erabiltzen ditut, silaba jakin batzuetara moldatu behar duzulako esan nahi duzuna. **Eginda dituzun hamar abesti horiek jotzen dituzue kontzertuetan?**

Bai, eta bertsio batzuk ere bai. Uste dut hamar kanturekin pixka bat motz geratuko nintzatekeela. Hala ere, sortu dudana erakustea gustatzen zait niri.

Insausti kantu batzuen jatorria azaldu zenuen jotzen hasi aurretik. Ikus-entzuleekin harremana estutzeko modu bat da?

Niri ez zait gustatzen kontzertua ematera joan eta abestiak soilik jotzea, hasi eta bukatu. Uste dut interesgarria dela sortzaileak esatea abesti bakoitzaren atzean zer dagoen. *Bi aholsetara*-rekin hasten ditut emanaldiak, niri buruz hitz egiten dudalako kantu horretan. Abestu egiten dut aurrena, eta azalpenak eman gero. **Sortzen ari zara orain?** Oraintxe bertan ez. Kantatzeari uztea ere pentsatu nuen, baina

buelta eman diot. Boladak dira, espero dut erabaki hori ez hartzea. Kontzertuak emateko deitzen didatenean joaten naiz, eta, bestela, musika asko entzuten ari naiz.

Zer, zehazki?

Olaia Inziartek *Lehen gozatu burua* diskoa atera zuenean, ez nuen besterik entzuten. Valeria Castrorekin hasi naiz orain, eta nahiz eta egunerokoan ez entzun, atera dituzten kantu batzuk ere gustatu zaizkit, Rosaliak eta Raw Alejandrok ateratakoak edo Miley Cyrus-en *Flowers*, adibidez.

Noiz hasi zinen gitarra jotzen?

11-12 urte nituela. Maialen Uribe lagunak esan zidan apuntatu egin zela, eta animatu egin nintzen. Jon Lasarekin aurrena, eta Aitzol semearekin gero. Ondoren, Udal Musika Eskolan aritu nintzen 2-3 urtez, baina ez zidaten ikasi nahi nuena irakatsi: notak. Bertara joateari uztea erabaki nuen. Gero, pianoarekin aritu nintzen urtebetez. Gustatuko litzaidake berriz hastea. Instrumentu hori ere eramango nuke emanaldietara jotzen eta abesten jakingo banu, baina landu egin behar dut.

Iruditzen zait *estankatu* egin naizela apur bat, pausoak lehenago eman nitzakeela.

'Biba Zuek' saiora zoaz gero [hilaren 30ekoa da elkarrizketa]. Telebistatik ez dute edonor deitzen, Maialen.

Bai... Exijentea naiz nire buruarekin eta gutxietsi ere egiten dut. Lehen esan dizudana, gorpila: batzuetan uste dut nire lanak ez duela behar bezainbeste balio; besteetan, baietz. Ea ongi doan, *Bilatu gabe aurkitutakoa* kantua joko dut programa horretako *Diskotxokoa* atalean.

Beste galderarik ez dut nik, Maialen.

Beste ezer esan nahi baduzu, aurrera. Batetik, uste dut herrian ez daudela nahikoa espazio gure lana erakusteko. Udalak hori sustatu beharko luke. Gainera, entzun dut entseatzeko gelek gertatzen ari dena, trabak jartzen dituztela. Horretarako espazio bat baduzu, erraztasunak eman, kontrakoa ez egin.

Bestetik, baloratu egin behar dugu artisten lana. Aprobetxatzen saiatzen dira, 'Aizu, joko duzu doan?', eta horrelakoak. Elkartasun jaialdietan-eta egingo dut hori, baina, bestela, ez. Ahalegin asko dago horren atzean eta balioan jarri behar dugula uste dut.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus atarian

Jon Presa herritarra, berriro podiumean

Lasarte-Oriako korrikalariak eta mendi zaletuek hainbat probari egin diote aurre hileko azken asteburuan. Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiko proba motzean, esate baterako, Aloña Mendi taldeko Jon Presa herritarra izan da lehena helmuga igarotzen

Txintxarri

Aloña Mendi taldeko Jon Presa herritarra berriro podiumeko koska gorenera igo da. Oraingoan 30. Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiko proba motzean lortu du garaipena. Presa ez zen Azkoitia eta Azpeitia arteko probaren batean parte hartu zuen lasarteoriar bakarra izan; beste lasterkari bat izan zen 8,1 kilometroko proban korrika eta beste sei lasarteoriarrek 20 kilometroko proba lehiatu zuten. Beroa eta haizeari aurre egin zioten bi probetako parte hartzaileek. Lasterketa motzean Presak aurre hartu zuen eta bakarrik egin zuen ibilbidea.



Jon Presa (erdian), Azkoitia Azpeitiako proba motzeko podiumean. UKT

Azken hiru kilometroetan beroarengatik sufritu zuen eta gainera, atzetik zetorren Mustapha Archaoui gerturatzen ari zela ere ikusi zuen herritarrek. Azken esfortzua egin ez iritsi zen lehena helmugara, 26.29.

Trinko taldeko Julen Ormazabal herritarrek ere ibilbide motza egin zuen eta 29.39 behar izan zituen helmuga zeharkatzeko.

Proba luzean, aldiz, Trinko taldeko Imanol Arteaga (01.28.13) eta Naroa Salsamendi (02.03.00) izan ziren Lasarte-Oriako herritarren artean azkarrenak.

Lasterketa amaitu zuten gainerako lasarteoriarrek Trinkoko kide Asier Gorostegi

(01.29.08), Iñigo Ibarburu (01.47.39), Tomas Arruti (01.44.46) eta Peio Fadrique (01.57.12) izan ziren.

Beste probak

Hilaren 26an, berriz, Donostia eta Hondarribia batzen dituen Talaia Bidea lasterketan ere izan zen Lasarte-Oria edo herriko talde bateko ordezkariak. Dortsala zozketa bidez eskuratu eta bi hiriak batzen dituen kostaldeko bidea egin zuten zazpi herritarrek.

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarte (LOTME) Sergio Ramirezek 02.33.51ko denboran egin zuen 30,8 kilometroko bidea.

LOTMEko hainbat taldekide ere izan ziren proban lasterka: Jon Huici 02.36.57, Ricardo Marcos 02.47.29 eta Xabier Carcedo, 02.58.47.

Parte hartu zuten gainerako lasarteoriarrek Mikel Benito (03.25.18), Igor Sevillano (03.27.38) eta Amancio Carrillo (03.36.28) izan ziren.

Horrez gain, LOTMEko hainbat kide 54. Aizkardi mendi ibilaldiaz gozatzen izan ziren. 25 kilometroko ibilbide motza egin zuten.



'Monzalvos', Janacek-ek gidatua, helmuga zeharkatzen. ISAAC FARRE RICO

Udaberriko denboraldia ederki hasi du Hipodromoak

Hilaren 29an, goizean, Udaberriko denboraldiko lehen hitzordua jokatu zen Hipodromoan. Lasarte-Oriako denden izenak dituzten sarietan lehia ederrak ikusteaz gain, hainbat ezusteko ere izan ziren. Aldufoof eta Nicolas de Julian, Coolmeen Vega eta Cristina Perez, Monzalvos eta Vaclav Janacek zein Jaime Gelabert Urbieto eta Jasperoidekin izan ziren lehenak helmuga igarotzen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Ostadar SKT - Urnieta KE
Larunbata. 18:00. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA
Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa
Igandea. 15:15. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA
Beti Ona CD - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 18:00. Beraun, Errenterian.
Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro FKE B
Igandea. 13:15. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO JUBENIL MAILA
Ekintza KE - Ostadar SKT
Larunbata. 19:20. Berio, Donostian.
JUBENIL 1. MAILA, IGOERA
Antigua Luberrri KE B - Ostadar SKT B
Igandea. 12:15. Berio, Donostian.
JUBENIL 1. MAILA, KOPA
Dunboa Eguzki CD - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 15:30. San Jose Obrero, Irunen.
Ostadar SKT C - Billabona KE B
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO KADETE MAILA
Real Union Club SAD - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. GAL, Irunen.
KADETE 1. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Sporting de Herrera
Larunbata. 13:00. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT C - Kostikas KE E
Igandea. 11:40. Michelin kirol gunean.
Trintxerpe CD B - Ostadar SKT B
Igandea. 12:00. Trintxer, Pasaian.
OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Beti Ona CD
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

INFANTIK TXIKI, KOPA
Trintxerpe CD - Ostadar SKT
Larunbata. 10:15. Trintxer, Pasaian.
INF. 1. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA
Billabona KE A - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 09:00. Arratzain, Villabonan.
INFANTIL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Martutene KE B
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
Hernani CD - Ostadar SKT A
Larunbata. 10:30. Zubipe, Hernanin.
INFANTIL F8, KOPA
Intxaundi KE A - Ostadar SKT
Larunbata. 09:00. Trintxer, Pasaian.
ARETO FUTBOLA
1. MAILA
Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - Idiazabal BaiReformas
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol
2. MAILA
Madamar Zarautz KE - Eguzki ISU Leihoko
Larunbata. 16:00. Antoniano kirol., Zarautzen.
GAZTEEN MAILA
Eguzki Bodegas Ayesa - Goierrri KE
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL MAILA, 2. FASEA
Lauburu KE Ibarra - Eguzki AF
Larunbata. 11:45. Belabietia kirol., Ibarra.
SASKIBALOA
SENIOR 3. MAILA
Ostadar SKT - Contubi Oiarso SKT
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR PARTAIDETZA, IGOERA
Ostadar SKT A - Erroibide Urbycolan
Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR PARTAIDETZA
Eibar Saskibaloia Junior - Ostadar SKT B
Ostirala. 20:00. Ipurua kirol., Eibarren.
INFANTIL PARTAIDETZA
Ostadar Beltza - Eibar Saskibaloia 2009
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, OHOREZKO B MAILA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Iruña RC
Larunbata. 16:10. Michelin kirol gunean.
16 URTEZ AZPIKOA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Gaztedi RT
Larunbata. 10:30. Asti, Zarautzen.
GIMNASTIKA
SANTUTXU TORNEOA
LOKEko Mailaen Aranzabe, Maitane Sarmiento eta Mirian Prieto Santutxu torneoan parte hartuko dute.
Igandea. Goiza. Begoña-Txurdinaga kiroldegia, Bilbo, Bizkaian.
BETI AUERRERA TORNEOA
LOKEko Erika Arroyo, Paula Martinez zein kadete mailako LOKE 1 eta 2 taldeek Beti Auerrera torneoan parte hartuko dute.
Igandea. Arratsalde. Abetxuko kiroldegia, Gasteiz, Araban.
IGERIKETA
UDABERRI SARIA
Buruntzaldea IKTKo alebinek Ligako seigarren jardunaldia jokatu dute.
Larunbata. 16:00. Majori kirol., Ordizian.
KONZENTRAZIOA
2009 urtea baino lehen jaiotako Buruntzaldea IKTKo igerilariek konzentrazioa izango dute.
Pazko Astea. Madrilen.

JUDO
EUSKADIKO TXAPELKETA
LOKEko judokak kadete mailako Euskadiko txapelketan lehiatuko dira.
Larunbata. 16:00. Urbeltz fr., Legazpian.
ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
LOKEko judoek Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokotan parte hartuko dute.
Larunbata. 10:30. Musakola kir., Arrasaten.
ATLETISMO
GIPIZKOAKO TXAPELKETA
Ostadar SKTKo alebin eta infantil mailako atleta gazteek eskolarteko bakarkako Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.
Igandea. Goiza. Plaiandu, Irunen.
KONZENTRAZIOA
Ostadar SKTKo infantil eta kadete mailako atleta talde batek eskola kiroleko teknifikazio programako konzentrazioan parte hartuko dute.
Apirilaren 10etik 16ra. Cambrils, Herrialde Katalanetan.
KONZENTRAZIOA
Ostadar SKTKo 18 urtez azpiko atleta talde batek teknifikazio programako konzentrazioan izango da.
Apirilaren 9tik 14ra. Benicassim, Castellon.
HALTEROFILIA
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Zizurkilgo Danok Danena taldeko Pablo Ucero herritarrek MAsMaster mailako Espainiako Txapelketa lehiatuko du.
Larunbata. Egun osoa. Anaitasuna pab., Iruña, Nafarroan.

AUTOMOBILISMOA
OPAKUA IGOERA
Aitor Manso herritarrek mendi igoeren denboraldiako bigarren proba lehiatuko du, Opakua igoera.
Larunbata. 12:00. Agurain, Araba.
BTT
BTT LASARTE-ORIA
BTT LEM Lasarte-Oria proba jokatu da Andatza eta Buruntza mendietan barrena.
Igandea. 09:00. Askatasunaren plazan.
ARRAUNA
SAN PEDROKO JAITSIERA
Herritarrek kide dituzten traineruek San Pedroko jaitsieran parte hartuko dute.
Larunbata. 16:30. Pasaian.
LASTERKETA
DONOSTIAKO MARATOI ERDIA
Lasarte-Oriako korrikalariak Donostiako maratoi erdia lehiatuko dute.
Igandea. 10:00. Donostian.
DUATLOIA
ZUIA DUATLOIA
Lasarte-Oriako kirolariak Zuiako Duatloian parte hartuko dute.
Larunbata. 14:00. Murgia, Araban.
HIPODROMOAK
UDABERRIKO DENBORALDIA
Udaberriko denboraldiko bigarren, hirugarren eta laugarren jardunaldiak lehiatuko dituzte.
Apirila 7, 12 eta 19. Hipodromo, Donostian.

Errekorrak, markak eta gutxienekoak poltsan

Buruntzaldea IKTKo igerilariak hitzordu garrantzitsuei aurre egin diete. Euren markak ontzeaz gain, Nahia Zudairek igeriketa egokitutako Espainiako bi errekor berri ditu; Miren Sarobek, Garazi Etxeberriak eta Iker Gorostegik txapelketa ezberdinetarako gutxienekoak lortu dituzte

Txintxarri

Igeriketa egokitutako Erkidego Arteko Espainiako Txapelketa eta Udaberriko Saria. Bi hitzordu garrantzitsuri aurre egin zieten Buruntzaldea IKTKo igerilari gazteek hilaren 25ean eta 26an.

Nahia Zudaire taldekidea Madrilen lehiatu zen igeriketa egokitutako lehiaketan. Euskadiko Selektzioaren izenean parte hartu zuen Zubietako igerilariak zazpi probatan hilaren Bakarka estilo libreko 100 m., 200 m. eta 400 m. probak jokatu zituen.

200 metroko saioarekin hasi zuen asteburua Buruntzaldea IKTKo igerilariak. Ongi hasi ere. Lehen postua eskuratzeaz gain, bere marka pertsonala ondu (02.26,98) eta Espainiako errekorra lortu zuen igerilari gazteak.

400 metroko lehiaren ere bikain aritu zen eta garaile izan zen. 05.01,76 marka egin zuen gainera, bere marka pertsonala lau segundotan hobetuz eta S8 mailako Espainiako errekor berria ere ezarri zuen. Igandean, 100 m. librean, aldiz, bosgarren izan zen (01.11,09).

Lau errelebo mistoetan ere borrokatu zen Buruntzaldea IKTKo igerilaria: lau estiloetako 4x50 m. eta 4x100 m. probetan zein estilo libreko 4x50 m. eta



Udaberriko Sarian parte hartu duten Buruntzaldea IKTKo igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

4x100 m. saioetan. Estilo libreko errelebo motzean izan ezik –seigarren izan ziren–, beste hiruetan bosgarren izan zen taldea. Eta sailkapen orokorrean ere Euskadik bosgarren amaitu zuen.

Markak eta gutxienekoak

Irungo Azken Portu igerilekuan, aldiz, Udaberriko Saria lehiatu dute Buruntzaldea IKTKo absolutu, junior eta infantilek.

Taldeko 11 kide izan ziren lehiaren eta guztira hemezortzi marka pertsonal ondu zituzten; horien artean dira Euskal Herriko Txapelketarako lau

gutxieneko eta Junior mailako Espainiako Udako Txapelketarako gutxieneko bat.

Euskal Herriko txapelketarako markak Miren Sarobek –100 m. bizkar eta 50 m. tximeleta probetan–, Garazi Etxeberriak (800 m. libre) eta Iker Gorostegui (800 m. libre) lortu zituzten. Eta Etxeberriak berak Udako Espainiako sailkapen marka egin zuen 50 m. bizkar saioan.

Igeriketa taldeko arduradunak pozik daude kirolarietako egindako lanarekin eta txapelketa horrekin denboraldiko lehen zatia amaitu ematen diotela jakitera eman dute.

Eguzkiko infantil taldea, pausoz pauso Gipuzkoako txapelketan

Lehiaketako finalerdiak erabakitzekeo ligaxka jokatzeko ari da herriko taldea; 5-2 gailendu da Erainen aurka

Txintxarri

Eguzki Aretoko Futbol taldeko infantil taldeak garaipen berria erdietsi zuen hilaren 25ean Maialen Chourraut kiroldegian; Erain 1º eta 2º DBH taldea 5-2 gailendu zuen.

Gorka Redondok zuzendutako taldea jarri zen aurretik. Bi gol egin zituzten eta lasai jokatzeko aukera izan zuten.

Atsedendialdiaren aurretik eta ostean, estutasun txiki bat jasan zuten, ordea. Aurkariak bi gol

egin eta neurketa berdintzea lortu zuen.

Egoera hori pizgarria izan zen etxeko taldearentzat. Baloien jabetza lortu, Erain menpean hartu zuen eta hiru gol gehiago lortu zituzten infantilek.

Jokalarien lana eskertu eta, batez ere, atezainaren jarduna nabarmendu du entrenatzaileak: "Balo asko geratu zituen, bigarren zatian, batez ere".

Denboraldi ederra egiten ari da Gorka Redondok zuzentzen duen taldea. Lehen fasean sailkapen



Alebin mailako gimnasta taldea entrenatzaileekin. LOKE GIMNASTIKA

Lasarte-Oriako eskolarteko gimnastak finaletan izango dira

Bigarren faseko lehia gailendu dute LOKEk entrenatutako alebin eta infantil mailako gimnastek

Txintxarri

Gimnasta federatuen antzera, Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) eskolarteko txapelketan parte hartu duten talde zein bikoteak aurrera egingo dute Gipuzkoako txapelketan eta finala jokatu dute. Hitzordua maiatzaren 13an izango da, Bergaran.

Hilaren 25ean eta 26an, Paco Yoldi kiroldegian lehiatu zen eskolarteko txapelketako bigarren fasea eta alebin zein infantil mailako LOKEko zein Landaberriko taldeak ederki jardun ziren.

Alebinen saioa izan zen lehen egunean. Taldeen atalean, Alebin B mailan Landaberri eta Alebin C mailan Landaberri 1ek eta 2k parte hartu zuten. Lehena laugarren postuan sailkatu zen eta gainerako biak bigarren eta seigarren izan ziren hurrenez hurren.

LOKE taldeko entrenatzaileek Alebin B mailako taldearen jarduna azpimarratu dute: "Lehen faseko emaitzari itzulia eman diote eta sailkapena lortu dute".

Alaia Jimenezek, aldiz, Alebin B mailako bakarkako lehiaren egin zuen lan; Laia Suberbiolarekin bikote egiten ari da. Bigarren postuan amaitu dute lehiaketa.

Infantilak egun bat geroago atera ziren tapizera. C mailan lehiatu ziren Landaberri 1 eta 2 eta laugarren eta zazpigarren izan ziren.

Gimnastika taldeko entrenatzaileak pozarren daude gimnastek bigarren fase horretan egindako lanarekin, baita guztiak finalean izango direlako ere.

Aste Santuan atsedean hartu eta itzultzerakoan finala prestatzeko gogor lan egingo dutela ere adierazi dute gimnastika taldeko arduradunek.



Erain eta Eguzkiko jokalariek baloia borrokatzen. TXINTXARRI

buru izan da eta Gipuzkoako txapelketa izan daiteke amaiera bikaina. Maiatzaren 14an jokatu diren finalerdiak gurutzaketak erabakitzekeo, lau taldeko ligaxka bat jokatzeko ari da egun Eguzki.

Horrez gain, infantilen arduradunak azaldu duenez, lehen faseko garaile modura, "Espainiako txapelketako sailkatu da taldea, beti ere, Euskadiko ordezkaria aukeratzeko kopa lehiaketa jokatzeko ez bada. Horrela izango balitz, lehiaketa gailendu beharko genuke".

Lasarte-Oriak BTTaz gozatuko du berriro

Apirilaren 2an, igandearekin, BTT LEM Lasarte-Oria proba jokatuko dute. Hamabigarren aldia parte hartzaile kopurua mugatu behar izan dute antolatzaileek eta 350 kirolari izan dira izena eman dutenak. Hiru ibilbide ezberdin egingo dituzte

Txintxarri

Apirilaren 2an, 09:00etan, txirrindularitza zaletuek hitzordua izango dute Lasarte-Orian. BTT LEM Lasarte-Oria probaren hamabigarren aldia antolatu dute MX Racing eta Saiatuz Kirol Elkarteak, Lasarte-Oriako udala eta hainbat babesleren laguntzaz. Antolakuntzako kide Iñaki Blanco, udaleko kirol zinegotzi Txus Alonso, udaleko Sozioekonomiako buru Nuria Fernandez eta Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak aurkeztu zuten kirol ekimena hilaren 29an.

Udal arduradunek eskerrak eman zizkieten lasterketako antolatzaileei herrian horrelako proba bat aurrera eramateagatik. Era berean, maila teknikoan ahal duten guztian lagundu dutela adierazi zuten, baita Sozioekonomia sailak antolakuntzari 2.450 euroko laguntza eta kirolariei banatzeko Tratu On Bat markako poltsak eman dizkiela ere.

Ibilbideak, anoak eta dortsalak

Iñaki Blanco antolakuntzako kideak eskaini ditu BTT LEM Lasarte-Oria probaren hamabigarren aldiaren nondik norakoak.



BTT Lasarte-Oria probako zein udaleko ordezkariak, lehiaketako babesle den BMW Lurautoko ibilgailuaren ondoan. TXINTXARRI

Aurten probak 350 parte hartzaile izango dituela jakitera eman du: "Izen ematea ireki eta gutxira plazak bete ziren. Aurten Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako mugarengatik 350 kirolari izango ditugu bakarrik. Baina lanean jarraituko dugu aurreko edizioetako 500 kideak berreskuratu ahal izateko".

Andatza eta Buruntza mendietatik zehar hiru ibilbide egingo dituzte BTT zaletuek: motza -25,7 kilometrokoa, "erraza, herritarrek parte hartu ahal izateko"-; ertaina, (31,6 kilometro); eta luzea (42 kilometro).

Lau anoa gune izango dira hiru ibilbideetan zehar; horietako bitan,

Inguru Bikes-en laguntza teknikoa izango dute txirrindulariek. Eta azkena Okendo plazan egongo da; bertan Patxi Larrañagaren txistorra dastatuko dute guztiek.

Horrez gain, parte hartzaileek Askatasunaren parkean bizikletak garbitzeko gunea izango dute eta Maialen Chourraut kiroldegiko dutxak ere erabili ahalko dituzte, probaren antolatzailearen hitzetan.

Dorsalak eta maillot banaketa apirilaren leian egingo dute: Urbileko Eroskin, 10:00etatik 13:00etara; eta, egunean bertan, 07:30etik 08:30era, Antonio Mercero gunean. Parte hartzaileei aurreko egunean jasotzeko gomendioa egin diete.

LOTMEK mendi lasterketa antolatu du uztailaren 16rako

Izena ematea kirol elkartearen webgunean egingo da apirilaren 1etik aurrera; 300 parte-hartzaile onartuko dituzte

Txintxarri

Mendi martxaren esperientziaren ostean, Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak Lasarte-Oriako Udalarekin batera Mendi Lasterketa antolatu du uztailaren 16an.

Benedika mendia, Azkorteko ermita eta Buruntza mendia zeharkatuko ditu ibilbideak. Guztira 16 kilometro eta +910 m. desnibela izango du probak; antolakuntzak azaldu duenez, lehen zortzi kilometroetan daude maldak.

Gainera, parte hartzaileek hiru ordu eta erdi izango dituzte

lasterketa amaitzeko. Beraz, baldintza fisiko onetan egon behar dela ohartarazten dute antolatzaileek.

Lehen hiru sailkatuek gizonezko zein emakumezkoek, Buruntza gailurrera iristen den lehenak eta lehen herritarrek saria jasoko dute.

Inskripzioa LOTMEko webgunean egin behar da apirilaren 1etik uztailaren 14ra. 300 dortsak izango dira eskuragarri.

Probaren gaineko xehetasunak LOTMEren webgunean atal berezian daude ikusgai.



TXINTXARRI

Borrokatu arren, ezin irabazi

Boleibol zaletuek Euskal Ligako neurketa borrokatua ikusi ahal izan zuten hilaren 25ean Maialen Chourraut kiroldegian. Ostadar SKTk eta Jatorkideko jubenil taldeak indarrak neurtu zituzten. Gasteiztarrak 3-0 gailendu ziren arren, talde urdin beltzak ederki egin zion aurre eta horren erakusle dira seten emaitzak: 20-25, 21-25 eta 25-27.

Infantilek, garaipena

Infantil mailako txapelkun fasea bigarren itzulian sartu da. Texas Lasartearra eta Ilinxa taldeak berriro aurrez aurre izan dira. Joaneko neurketan Ilinxak 5-0 irabazi zuen eta oraingoan Lasarte-Oriako taldeak arantza kendu du; Texas Lasartearra 3-1 gailendu da. Partida borrokatua jokatu zuten bi taldeek. Herriko taldeak sailkapenean gora egiteko behar dituen puntuak eskuratu zituen.



TXINTXARRI

Aitor Manso bosgarren izan da Aiako igoeran

XVI. Andatzatik Aiara igoera proba jokatzearekin batera Euskadiko Mendi Igoeretako denboraldia hasi da. Hilaren 25ean, maila ezberdinetako 35 gidari bildu ziren Aian lehen lasterketa egiteko; horien artean, Aitor Manso herritarra.

Joseba Iraola bizkaitarra izan zen garaile nagusia proban (01.40,319); Manso herritarrak

bosgarren postua eskuratu zuen sailkapen orokorrean eta 9. mailan bigarren izan zen.

Arerio gogorrek izan zituen Lasarte-Oriako gidari gazteak eta lehen igoera kronometratuan izan ezik, bosgarren postuan mantendu zen. Saio horretan laugarren izan zen. Lehen hiru saiakeretan bere markak ondu -01.57,706, 01.56,174 eta 01.52, 240- ostean, bigarren txanda kronometratuan ezin izan zuen denbora murriztu eta lehen saioko marka bera egin zuen helmugan.

Ez gaituzte garaituko



Ikama ikasle antolakundeak antolatutako mobilizazio bat; hezkuntza sistema aldatzeko eskatu zuten. TXINTXARRI

Orain dela gutxi, Gazte Euskaltzaleen Sarea izeneko talde aktibista sortu dute eta '#M23Kalera' lemapean, hilaren 23an Euskal Herriko hiriburuetakoko kaleak hartu dituzte, euren aldarria zabaltzeko: hezkuntza sistemak euskaraz izan behar duela

Maddi Lasa Ormazabal, Libe Elvira Arizeta, Aritz Ramos Irazusta, Urko Ormazabal Zugarramurdi eta Julen Gonzalez Toquero

Gazte Euskaltzaleen Sarea Euskal Herri osoko herrialde guztietako hainbat kidez osatutako sarea da, bi helburu nagusi dituena: euskararen aldeko borrokan gazte ikuspegia txertatzea eta belaunaldi oso bat borroka horretara batzea. Diotenez, gazte mugimenduetan euskararen bueltan aktibatuta dauden norbanakoen eta eragileen aterpe izan nahi dute, NUPEko Euskara Taldearen antzera, Nafarroan zonifikazioaren aurka osatzen

ari den mugimendua eta Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan euskaraz ikasteko eskubidearen alde mobilizatzen ari direnak.

Horiek guztiak eta beste hainbat batzen dituen haria da, horren aldeko borroka euren gain hartzeko prest daudela nabarmendu dutenak eta euskaraz biziko den belaunaldia izan nahi dutenak. Talde horrek, besteak beste, euskal hezkuntza oinarri duen hezkuntza bat defendatzen du, eta horri gogor eutsi nahi diote, izan ere, gure neurriko hezkuntza bat aldarrikatzen dute. Herri gogor bat dugula uste dute, Korrika

bera horren erakusle hartuta, euskaldunon kontzientzia berpiztea du helburu Euskal Herri osoa lasterka zeharkatuz. Beraz, horrelako ekimen bat antolatzea eta mugiaraztea herri honen gogortasunaren seinale dela deritzote.

Hori guztia aldarrikatzeko asmoz, aurten ere, beste manifestazio batera deitu dute eta hilaren 23an Euskal Herriko hiriburuetakoko kaleak hartu dituzte. Iaz ere, besteak beste, maiatzaren 22an Donostian *Euskara aurrera* lelopean, mobilizazio ikaragarri eta ezohiko bat egin zuten. Izan ere,

gazteek antolatutako, kasu honetan, Gazte Euskaltzaleen Sareak aurrera eramandako ekintzak adin guztietako jendea mugiarazi zuen. Beraien hitzetan, "historian jaso beharreko momentu esanguratsutzat" hartu zuten. Manifestazio horretan hainbat gauza aldarrikatu zituzten: batetik, Ipar Euskal Herriko ikasleek haien azterketak euskaraz egitea eskatzen zuten; bestetik, gure pantailetan euskara sendotzea eskatzen zuten. Ipar Euskal Herriko ikasleen ordezkari, besteak beste, Irantzu Idoate joan zen, iparraldeko bertsolari gaztea, emanaldiaren amaieran hainbat bertso abestera. Bere kantuetan esan bezala, "Euskara ez da aurrera joanen, aurrera eraman behar da". Hori aldarrikatu zuen.

Arestian aipatu bezala, haien aldarrikapenetako bat euskara ikus-entzunezkoetan zabaltzea da. Horretarako, Donostian eta Bilbon hainbat protesta egin zituzten. Esaterako, pintadak egin zituzten aldarrikapenak jende gehiagori zabaltzeko asmotan.

Aurten ere, iaz bezala, lehen aipatu dugun bezala, hilaren 23an, beste aldarrikapen manifestazio bat egin zuten Euskal Herriko hainbat hiriburuan. Horren inguruko xehetasunak gaur egungo gazteriari azaltzeko helburuarekin, Gazte Euskaltzaleen Sarea Euskal Herriko ikastetxe askotatik pasa da, hitzaldi baten bidez aldarrikapenak zabaltzeko. Horien artean, guk ere, Oriarte

ikastetxeko ikasleok, azalpen horietaz gozatzeko aukera izan genuen hilabete hasieran, horri buruz hitz egitera etorri zirenean.

Gu, Euskara Batzordeko kide oro, mugimendu indartsu honen alde gaude, izan ere, oso garrantzitsua iruditzen zaigu talde horrek aldarrikatzen duena. Gure ustez, Euskal Herrian, hezkuntzak euskaraz eta euskaratik beharko luke. Bai hezkuntza aldetik, eta baita ikasgaiei dakokienez ere. Ipar Euskal Herrian, Euskal Herriko historia ikasi nahi dute, ez Frantziakoa, Euskal Herriko gainerako lurraldeetan bezala. Azterketak ere, euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatu nahi dute, eta guk ere, hezkuntza osoa, Euskal Herriko gaietan oinarritutako ikasgaietan nahi dugu.

Bestalde, Euskara Batzordeko kideak garenez, badakigu, ikastetxe honetan bertan, ikasleren aldetik, salbuespenak salbuespen, euskararen erabilera nahiko eskasa dela eta gehiengoak ez duela egunerokoan erabiltzen, beraz, gu eta Gazte Euskal Sareko kide guztiek, horren aurka ere egin nahi dugu borroka, besteak beste.

Ondorioz, gazteak oso indartsu gatzela adierazi nahi dugu, eta borrokan horretan parte hartu nahi dugula beste milaka euskaldunekin batera.

Ez gaituzte isilduko, ezta kikilduko ere, eta egoerari sutsu aurre egiteko prest gaude milaka gazte indartsu. Gora Gazte Euskaltzaleen Sarearen borroka!



Ikasle mordo bat, hilaren 23an Gazte Euskaltzaleen Sareak antolatutako manifestazioetako batean, Bilbon. G. EUSKALTZALEEN SAREA

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

OSTIRALA 31

LASARTE-ORIA Literatura

Nabarralde fundazioak antolatuta, *Amaiur! Libera State* eta *Gasteiz 1200, defentsa amaigabea* komikiak aurkeztuko dituzte. Sarrera, doan. Insausti taberna, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Azken Ostirala egingo dute Sare, Etxerat eta Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak. Ohiko ibilbidea moldatuko dute, Okendo plazatik atera, erdigunea zeharkatu eta Osasun Zentroaren atarira joango baitira. Okendo plaza, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak txotx! egingo du Atsokabar auzoko egoitzan. Sagardotegi denboraldian ohikoa den menua dastatuko dute. Semblante Andaluz elkartearen egoitza, 21:00etatik aurrera.

IGANDEA 2

LASARTE-ORIA Zinema

Momiak filma proiektatuko dute. Sarrerak 4 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

El triángulo de la tristeza filma emango dute. Sarrerak, 6 eurotan. Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 12

LASARTE-ORIA Opera

Turandot operaren emanaldi digitala proiektatuko dute Danok Kide elkarteak eta udalak. Sarrerak 7,5 eta 9 euro artean balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Zinema

Irati filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerak, 6 eurotan. Kultur etxea, 22:00etan.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Zinema

Violeta, el hada traviesa filma emango dute, haurrentzat. Sarrerak 4 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.



LASARTE-ORIA Antzerkia. Tentazioa Teatroak *Nunca he estado en Dublín* antzezlanaren emanaldi egingo du. Markos Goikoleak sortu du lana, eta Mireia Gabilondok zuzendu. Umore garratzeko komedia bat da, Amesti familiaren gorabeherak kontatzen dituena. Besteen bizipen eta sinesmenak onartzeko dugun gaitasunaz hausnartzea da obraren xedea. Bihar, apirilak 1, larunbata, kultur etxean, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Irati filma emango dute, helduentzat. Sarrerak 6 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 17

LASARTE-ORIA Txapelketa

Lasartearra elkarteak 50 urte beteko ditu aurten, eta urtemuga berezi hori ospatzen hasteko mus txapelketa bat aurrera eramango du. Antolatzaileek gogorarazi dute izena emateko epea irekita dagoela oraindik. Hauek dira baldintzak: bikoteko kide batek gutxienez elkarteko bazkide izan behar du; jokalaria pare bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu elkartearen egoitzan, Erribera kaleko 10. zenbakian; eta txapelketako kanporaketak inskribatzen diren lagunen arabera izango dira. Lehen fasea apirilaren 17an hasiko da. Lasartearra elkarte.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Kontzertua

Go!azen saioko aktoreek kontzertua egingo dute. Sarrerak, 4 eurotan. Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Kontzertua

Gaztanbide: la alegría de vivir y cantar kontzertua emango

du Sinfonia Navarra taldeak. Sarrerak 14 euro balio dute. Kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 27

LASARTE-ORIA Dantza

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak antolatutako topaketan Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute. Okendo plaza, 19:00etan.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Zinema

The Fabelmans pelikula proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerak 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atari digitaletan eros daitezke. Kultur etxea, 22:00etan.

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA Zinema

Lau ahizpa magikoak pelikula emango dute, haurrentzat. Sarrerak 4 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atari digitaletan eros daitezke. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Loli Tormenta filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerak 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atari digitaletan eros daitezke. Kultur etxea, 19:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

KULTUR ETXEA

'Momiak'
Igandea 2
17:00.

'El triángulo de la tristeza'
Igandea 2
19:30.

'Irati'
Ostirala 14
22:00.

'Violeta, el hada traviesa'
Igandea 16
17:00.

'The Fabelmans'
Ostirala 28
22:00.

'Lau ahizpa magikoak'
Ostirala 28
22:00.

'Lau ahizpa magikoak'

Igandea 30
17:00.

'Loli Tormenta'
Igandea 30
19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Todo a la vez en todas partes'
Larunbata 1
19:30, 22:00.

Igandea 2
19:35.

Astelehena 3
19:30, 22:00.

'Lau ahizpa magikoak'
Larunbata 1
17:00.

Igandea 2
17:00.

'Here we are'
Asteartea 4
19:30.

HERNANI

BITERI

'Sick myself'
Hilaren 31tik
apirilaren 3ra
22:30ean, egun
bakoitzean.

'Ighen erresuma'
Larunbata 1
16:30.

Igandea 2
16:30.

USURBIL

SUTEGI

'Irati'
Igandea 2
19:00.

CINESA URBIL

'John Wick 4'
Ostirala 31
17:50, 18:50,
21:35.

APIRILAK 1

17:50, 18:50,
21:35.

APIRILAK 2
17:50, 18:50,
21:35.

'65'
Ostirala 31
15:50, 22:00.

Larunbata 1
15:50, 22:00.

Igandea 2
15:50, 22:00.

'Mari(dos)'
Ostirala 31
15:40, 20:10,
22:35.

Larunbata 1
15:40, 20:10,
22:35.

Igandea 2
15:40, 20:10,
22:35.



LABURPENA

'El triángulo de la tristeza'

Zuzendaria: Ruben Ostlund. **Gidoia:** Ruben Ostlund. **Argazkia:** Fredrik Wenzel. **Ekoizleak:** Plattform Produktion, SVT, Film I Vast, Coproduction Office, Arte France Cinema, Eurimages, ZDF/Arte Imperative Entertainment, BBC Film. **Herrialdea:** Suedia (2022). **Iraupena:** 147 minutu. **Generoa:** Komedia eta drama. **Aktoreak:** Harris Dickinson, Charlbi Dean, Zlatko Buric, Dolly De Leon, Woody Harrelson, Vicki Berlin, Henri Dorsin, Sunny Melles, Jean-Christophe Folly, Iris Berben, Arvin Kananian, Amanda Walker, Alicia Eriksson, Nana Manu, Hanna Oldenburg, Oliver Ford Davies, Linda Anborg, Carolina Gynning eta Camilla Lackberg, besteak beste.

Klaseen arteko talka, itsasoan

Carl (Harris Dickinson) eta Yaya (Charlbi Dean) luxuzko itsas bidaia batera gonbidatu dituzte, beste hainbat pertsona aberats eta famaturekin batera, esate baterako, Dimitry-rekin (Zlatko Buric) oligarka errusiarra. Bidaiari guztiz aurkako pentsakera du ontziaren kapitainak, Thomas Smith izenekoak (Woody Harrelson), eta

horrek gauzak okertuko ditu, berehala hasiko direlako gonbidatuen eta eskifaiko langileen arteko gatazkak.

Oro har, kritika onak jaso ditu Ruben Ostlund zuzendari suediarren filmak. Oscar sarietan hiru hautagaitza jaso zituen: pelikula, zuzendari nahiz gidoi onenarenak, hain zuzen.



Ezker-eskuin: Markel Zoriaquiain, Oihan Navarro eta Mei Arregi, 'Biba Zuek' saioko platoan. EUSKAL TELEBISTA

Norbera izateko aldatzen ari direnari buruz hizketan

Euskal Telebistako 'Biba Zuek' saioan izan da Oihan Navarro lasarteoriatarra, Naizen elkarteko beste bi kideekin batera, transexualitateaz eta bere trantsizioari buruz hizketan. Hartu dituen erabakiekin "gustura eta harro" dagoela nabarmendu du

Txintxarri

Bizipoza elkartearen *Mundu berri bat guztiontzat* egitasmoaren hirugarren CD-DVDan parte hartu du Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkarteak, *Ikus dezadan* abestiarekin. ETBko *Biba Zuek* telebista programako lagunek saiora gonbidatu dituzte hiru kide transgenero, haien baitan bizitzen ari diren aldaketa prozesua gertutik ezagutzeko: Oihan Navarro lasarteoriatarra, Mei Arregi eta Markel Zoriaquiain.

"15 urte betetzear nituela jabetu nintzen mutila nintzela", kontatu die Navarrok Maddalen Arzallus eta Xabier Sukia aurkezleei. Bere baitan bizitzen ari zena gizarteratzea erabaki zuenean, lagun batengana jo zuen aurrea. Amarekin hitz egiteko aholkatu zion hark. "Barruan neraman guztia askatu nuen berarekin, eta esan nion hilabete batzuk hartuko nituela gaiari buruz pentsatzeko; denbora hori pasata, trantsizioarekin hasi nahi nuela esan nion". "Une txar batzuk" pasa dituen arren, prozesua "primeran" darama gazteak:

"Hartu ditudan erabakiekin gustura eta harro nago".

Hormonazio prozesuari ekin aurretik, izena aldatzea erabaki zuen. "Iruditzen zaituen elementu bat dela, iruditu zitzaidan aldatu egin behar nuela izena, gainerakoek mutil gisa ikusteko ni". Lasarteoriatar gazteak adierazi du "oso ondo" hartu zutela albistea bere ingurukoek, oro har.

'Ikus dezadan' abestia




Bizipozaren *Mundu berri bat guztiontzat* hirugarren CD-DVDan 11 eragilek parte hartu dute, tartean, Naizenek. Talde hori osatzen duten egiten duten lana Ikus dezadan kantaren bidez kontatu dute: Kai Nakai eta Iñigo Etzezarreta musikariek jarri diote ahotsa, eta Ekaitz Goikoetxeak, berriz, letra.

Argitalpen horretarako egindako bideoklip guztiak www.bizipoza.eus webgunean ikus ditzakezue, eta YouTube-n ere bai. Naizeneko hiru kideei ETBn egindako elkarrizketa, bestalde, EITB Nahieran atarian duzue: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/>.

Argazki lehiaketa

txintxarri

ASTE
SANTUA **23**



iazko argazki lehiaketako irudi batzuk